



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2012ko otsailaren 21a

19. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—2012rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 19/2011 Foru Legea. Akats zuzenketa (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da azter dezan espetze berria eta Iruñeko hirigunea lotzeko garraio publikoko linea bat jartzeko aukera. Sustapen eta Etxebizitza Batzordeak onetsia (4. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Nafarroako Ubidearen esparru ureztagarrian ureztalurrak ezartzeko eta hobetzeko proiektuaren egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, jakiteko zein den “Dirulaguntza Zigor arloko Bitartekotza Konpontzailea Elkarteari” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak izan ote zuen Espainiako armadak Nafarroako lurraldean eginitako ekitaldiaren berri. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, jakiteko zein den “Irisgarritasun Unibertsalari eta Ororentzako Diseinuari buruzko Foru Legearen aplikazioa” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, jakiteko zein den “N-111ko biribilgunea Vianan” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, ikastetxe publikoetan plantillak murrizteak eragindako aurrezpenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).

- Galdera, jakiteko zein den “Gutxiengo etnikoak sustatzeko dirulaguntza” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, jakiteko zein den “Gaixo zeliakoak dituzten familientzako laguntzak” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, dauden baliabideak Sarrigurengo Osasun Etxea berriz irekitze aldera berrantolatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, baso-suteen arrazoiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, “onura/gastu fiskal” deritzenak kentzearen arrazoitari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, aurrekontuko diruan 2012rako muga gisa ehuneko 2,95eko beherakada ezartzearen arrazoiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, jakiteko zein den Nafarroako Gobernuaren jarrera PPren Gobernuak onetsitako lan erreforma dela eta, José Miguel Nuin Moreno jaunak egina (17. or.).
- Galdera, jakiteko nola eraginen duten betetzen ez diren lanpostu hutsek zerbitzu publikoetan, Víctor Rubio Martínez jaunak egina (18. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

2012rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 19/2011 Foru Legea.

AKATS ZUZENKETA

2012rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 19/2011 Foru Legean akats bat atzeman da. Legea 2011ko abenduaren 29ko 42. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Horrenbestez, ondoko zuzenketa egin da:

19. orrialdean, bigarren xedapen gehigarriaren 1. idatz-zatian txertatuta dagoen taulan, hau dioen lekuan:

MENDEKOTASUN EGOERA	GEHIENEKOA euroak/hilean	GUTXIENEKOA euroak/hilean
Mendekotasun handia, 2. gradua	542,85	311,48
Mendekotasun handia, 1. gradua	542,85	249,44
Mendekotasun larria, 2. gradua	407,21	201,75
Mendekotasun larria, 1. gradua	407,21	162,00
Mendekotasun moderatua, 2. gradua	180,00	60,00

Honela behar du:

MENDEKOTASUN EGOERA	GEHIENEKOA euroak/hilean	GUTXIENEKOA euroak/hilean
Mendekotasun handia, 2. gradua	542,85	311,48
Mendekotasun handia, 1. gradua	542,85	249,44
Mendekotasun larria, 2. gradua	407,21	201,75
Mendekotasun larria, 1. gradua	407,21	180,00
Mendekotasun moderatua, 2. gradua	180,00	60,00

Iruñean, 2012ko otsailaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azter dezan espetxe berria eta Iruñeko hirigunea lotzeko garraio publikoko linea bat jartzeko aukera.

SUSTAPEN ETA ETXEBIZITZA BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Sustapen eta Etxebizitza Batzordeak, 2012ko otsailaren 14an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azter dezan espetxe berria eta Iruñeko hirigunea lotzeko garraio publikoko linea bat jartzeko aukera”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2012ko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azter dezan espetxe berria eta Iruñeko hirigunea lotzeko garraio publikoko linea bat jartzeko aukera

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du balioets dezan garraio publikoko linea bat, espetxe berriaren eta hirigunearen artekoa, egokitze aukera, behar adinako maiztasuna izanen duena, linea hori eta eskualdeko hiri garraioaren sarea lotuz.

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako Ubidearen esparru ureztagarrian ureztalurrak ezartzeko eta hobetzeko proiektuaren egoerari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Manu Ayerdi Olaizola jaunak galdera egin du Nafarroako Ubidearen esparru ureztagarrian ureztalurrak ezartzeko eta hobetzeko proiektuaren egoerari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 13ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 4an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko kontseilariaren erantzuna

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Manuel Ayerdi Olaizola jaunak galdera egin du, zenbait biztanlegune Nafarroako Ubidetik urez hornitzeari buruz. Hona Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko kontseilariaren erantzuna:

1) Nafarroako Gobernuak zenbait biztanlegune eta industria Itoiz-Nafarroako Ubidetik urez hornitzeko Ebroko Konfederazio Hidrografikoan izapidetutako emakida-proiektuaren arabera, hasiera batean proiektuan sartzen ziren herriguneak 292 ziren (97 udaletakoak), Goi-presioko Ur Hornidurarako Plan Zuzendarian aurreikusitako soluzioen arabera banatuta. Hona hemen banaketa:

Iratiko soluzioa: 4 udaletan bildutako 21 herrigune.

Mendinetako soluzioa: 4 udaletan bildutako 20 herrigune.

Iruñerriko soluzioa(*): 55 udaletan bildutako 200 herrigune.

Mairagako soluzioa: 14 udaletan bildutako 31 herrigune.

Hegoaldeko eskualdeko soluzioa: 20 udaletan bildutako 20 herrigune.

Ondoren, eta proposamen berrien eta haiek eraginda soluzioetan egin ziren aldaketa batzuen ondorioz, Nafarroako Ubideak ukitutako herriguneren kopurua handitu egin da, bereziki plan zuzendarian aurreikusitako soluzio berriei dagokienez. Hona hemen soluzio berri horiek:

– Mairagako soluzioa, hari atxikita jada desgindako Aragoi Ibarreko Ur Mankomunitateko herri guztiak (Zarrakaztelutik hasita Caparrosora), bai eta Aragoi Behean daudenak ere (Martzellatik Milagrorra). Proposamen berri honek 13 herrigune berri biltzen ditu, 11 udaletakoak.

– Iruñerriko soluzioa: soluzio honetan sartuko da, etorkizunean eskaeraren hazkundeak hala eskatzen duenean, egungo Izarbeibarko Uraren Mankomunitate osoa; hau da, 26 herrigune, 12 udaletakoak.

Hala, amaierako aurreikuspenen arabera, Nafarroako Ubidetik ur hornidura jasoko duten herriguneak 331 izanen dira, 120 udaletakoak.

Horietatik guztietatik, gaur egun 2009-2012 eperako Toki Azpiegituren Planean, Goi-presioko Ur Hornidurarako Plan Zuzendariaren kapituluaren aurreikusitako lanak egiten badira, Nafarroako Ubidea baliabide gisa aprobetxatzeko aukera izanen luketen herriguneak 218 izanen lirateke, 59 udaletakoak.

2) Bigarren galderari dagokionez, esan daiteke Iruñerrian sartu beharreko kontzeju edo herrigune txikiren bat kenduta, falta diren herriguneak, funtsean, bi eskualdetan banatuta daudela:

Mairagako soluzioan, non, lehen aipatu denez, egungo Mairaga-Erdialdeko Mankomunitateko herrigune guztiak baitaude, bai eta oraindik sartu ez diren beste batzuk, hala nola Martzilla, Funes, Faltzes, Alesbes eta Milagro.

Hegoaldeko eskualdea, ondoko herriek osatzen dutena: Tuter, Castejón, Fontellas, Cabanillas, Fustiñana, Cadreita, Arguedas, Valtierra, Cascante, Cintruenigo, Fitero, Murchante, Corella, Ablitas, Barillas, Tulebras, Monteagudo, Buñuel, Ribaforada eta Cortes.

Bestalde, eta herrigune horiek Nafarroako Ubidetik ura hartu ahal izateko bidea emanen duten inbertsioak egiteko aurreikuspenak ezartze aldera, komenigarria da esatea aurreikuspen hori egitea oso zaila dela; izan ere, Toki Ogasunen Kapital Transferentzien Funtsean dagoen bolumenaren eta ubidea bera egiteko egutegia betetzearen arabera izanen da. Departamentuak duen informazioaren arabera, ubidearen 2. fasearen eraikuntzak 3 urteko atzerapena izanen du, Estellerriko ureztalurren inbertsioa aurreratu izanaren ondorioz.

Edonola ere, eta betetzeke dauden inbertsioak egiten direnez aipatu Kapital Transferentzien Funtsearen kargura departamentu honek kudeatzen dituen hainbat urtetarako inbertsio planen kontura, esan daiteke ezen, aurrekontu horrek eta udalen egoera ekonomikoak horretarako bidea ematen badute, departamentu honek asmoa dela inbertsio horiek abian jartzea Nafarroako Ubidearen eraikuntzarekin eta zerbitzuan jartzearekin bateragarri egiteko moduko epean.

(*) Komeni da argitzea Nafarroako Ubideak ukitzat jotzen diren Iruñerriko Mankomunitateko herriak haiek guztiak direla; izan ere, ubidea Eugiko urtegiaren eta Artetako iturburuaren osagarritzat hartzen da.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko kontseilaria: Roberto Jiménez Alli

I. sektorea, 2006an.	1.150 ha
II.1 sektorea, 2007an.	1.054 ha
II.2 sektorea, 2008an.	3.136 ha
III. sektorea, 2008an.	1.157 ha
Guztira, 2008an	6.497 ha-ko ureztalurrak (aurreikusitakoa baino % 24 gehiago)

2011n amaitu da Nafarroako Ubidearen 1. fasea, eta, guztira, 22.347 ha-koa izan da eraldatutako azalera. Hori egiteko, obra publikoaren emakida-arubidea baliatu da, Nafarroako Ubide-

Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Manuel Ayerdi Olaizola jaunak galdera egin du, idatziz erantzutekoa, Nafarroako Ubidearen esparru ureztagarrian ureztalurrak ezartze eta hobetzeko proiektuaren egoerari loturiko zenbait gairi buruz (PES-158). Hona hemen Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna, zehazki galderaren bigarren zatian dagokiona (lehorreko 1. eta 2. sektoreko hektareak ureztalurrei buruzko gaiak):

Ureztalurretarako eraldaketari dagokionez, Nafarroako Ubidearen esparru ureztagarriaren plangintza jasota dago Nafarroako Foru Komunitateko ureztaketa lanean sartutako ureztaketetako jarduketa eta obrei buruzko martxoaren 16ko 7/1999 Foru legean eta hura garatzen duten dekretuetan, bereziki 212/2002 Foru Dekretua, urriaren 7koa, aldaketak onesten dituen Nafarroako Foru Komunitateko Ureztatze Planeko jarduketa zerrendan (142. NAO, 2002ko azaroaren 25ekoa).

Aurreikuspenak honakoak ziren: 2008rako eraldatu behar ziren 5.256 ha garbi, eta 2018rako 53.125 ha, hau da, emakidari esleitutako azalera osoa.

Hona hemen 2008rako egiak eraldatu diren sektoreak:

ak ureztatuko duen eremuko interes orokorreko azpiegituren eraikuntzari eta ustiapenari buruzko azaroaren 22ko 12/2005 Foru Legean ezarritakoari jarraikiz. Hona hemen xehetasunak:

SEKTOREA	Jabeen kopurua	Azalera
1. FASEA	JABEAK	Hektareak
I	378	1.150
II-1	290	1.054
II-2	890	3.136
III	278	1.157
IV.1	536	2.383
IV.2	77	901
IV.3	235	1.429
IV.4	402	2.614
IV.5.2 Cap-Marc	212	1.058
V	550	908
VI	250	817
IV.5.1 Peralta	537	899
VII	300	1.521
VIII	90	241
IX	600	1.976
X	60	1.103
Guztira	5.685	22.347

Nafarroako Foru Komunitateko Ureztatze Planean aurreikusitako hurrengo epemugarako, 2018rako, asmoa da aurreikusitako azalera osora iristea, hau da, 53.125 ha. Nafarroako Ubidearen eremu ureztagarriaren 2. faseko sektore desberdinak abian jartzearen erritmoa baldintzatuko du, jakina, Canal de Navarra S.A. estatu-sozietateak Nafarroako Ubidearen zatiak eraikitze eta sektore bakoitzeko ureztatze-hartuneak eskueran jartzeko hartzen duen erritmoak, eta, era berean, erritmo hori baldintzatuko dute egoera ekonomikoaren bilakaerak eta Nazioko gobernuek aurrekontuen arloan etorkizunean hartzen dituzten erabaki desberdinek. Landa Garapen, Industria, Enplegu

eta Ingurumen Departamentuak badu 1. fasea eraikitzean hartutako esperientzia, halako moduz non ziurta daitekeen eremu ureztagarriaren bilakera erabat egokituko dela CANASA estatu-sozietateak Nafarroako Ubidea eraikitze egiten dituen lanen erritmora.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, jakiteko zein den “Dirulaguntza Zigor arloko Bitartekotza Konpontzailea Elkarteari” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du jakiteko zein den “Dirulaguntza Zigor arloko Bitartekotza Konpontzailea Elkarteari” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 12ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du Nafarroako Aurrekontu Orokorretako "Dirulaguntza Zigor arloko Bitartekotza Konpontzailea Elkarteari" izeneko kontusailaren betetze mailari buruz (8-11/PES-00064). Hona Nafarroako Gobernuko Lehendakarietzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko kontseilariaren erantzuna:

Kontusail hori sartu zen 2011rako Nafarroako aurrekontu orokorretan Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztutako parlamentu-zuzenketa baten bidez, zeina 70.000 euroekin onetsi baitzen.

Lizarbe Baztán jaunak eginiko galderan bi alderdi aipatzen dira:

1. 2011ko ekainaren 30eko betetzearen gradu, maila eta zenbatekoa.

2. Betetze-maila partziala izan bada edo haren zenbateko osoa bete ez bada, ekitaldi amaierara bitarterako betetze-aurreikuspena.

Lehendabiziko galderari dagokionez, 2011ko urtarriletik ekainera bitarteko aldiari buruzko informazioa eskatzen bada ere, uztaila ere sartu dugu, 2011ko uztailaren 30eko datu itxiak eskura baike nituen.

Hala, hona hemen 2011ko urtarriletik uztailera bitarteko datuak:

- Igorritako espedienteak: 104
- Itxitako espedienteak: 63 (% 60)

- Irekitako espedienteak: 41 (% 40)

Uztailaren 31n, 104 espediente igorri zaizkio bitartekotza taldeari, 2010eko ekitaldi osoan baino bat gehiago.

Itxitako espedienteek dagokionez, hona emaitza:

- Itxitako espedienteak: 63
- Espedienteak adostasunarekin: 36 (% 57)
- Espedienteak adostasunik gabe: 27 (% 43)

Irekitako espedienteak (41) ebazteke daude.

2011ko uztailaren 31n betetako zenbateko ekonomikoari dagokionez, egun horretan beteta zeuden 29.825,30 euro guztira; hau da, erabilgarri zegoen aurrekontuaren % 42,6.

Betetako zenbatekoa ondoko kontzeptuei dagokie:

- Bitartekotza egindako kasu kopurua: 20.276,90 euro (% 68)
- Informazio eta aholku zerbitzua: 2.811 euro (% 9,5)
- Funtzionamendu-gastuak: 4.500 euro (% 15)
- Dibulgazio ekintzak (diptikoak): 2.237,40 euro (% 7,5)

Azken kasuan, portzentajeak 2011ko uztailaren 31n betetako guztiari buruzkoak dira.

Azkenik, eta aurkeztutako bigarren galderari erantzunez, ez da erraza ekitaldiaren amaiera bitarterako aurreikuspen bat egitea, arrazoi hauek tarteko:

Aldez aurretik ezin dira aurreikusi bitartekotza aplikatuko zaien aferak; izan ere, hori epaitegien esku dago soilik, eta ez dago horren inguruko inolako betebeharririk.

Kasu bat bitartekotzara bidaltzen denean, haren kostua desberdina izanen da adostasunarekin ala adostasunik gabe bukatzen bada, eta, lehenengo kasuan, beharrezkoa den saio kopuruaren arabera izanen da. Laugarren saiotik aurrera gehigarri bat aplikatzen da prezioan.

Hala ere, aurreko urteetako esperientzia ikusita, ondoriozta daiteke ekitaldiaren amaiera arteko gastua jada betetako baino txikiagoa izanen dela;

izan ere, abuztuan eta abenduan ez da bitarteko-tzarik egiten –abuztuan, hilabete baliogabea delako, eta abenduan igorritako kasuak hurrengo ekitaldirako uzten dira, ekitaldi berean aaitze aldera–. Bestalde, urteko azken hilabeteetan kasu gutxiago igortzen dira, horren arrazoia ez badakigu ere.

4.500 euroko gastua dago konprometituta, funtzionamendu-gastuen bigarren eta azken ordainketa gisa ordainduko dena ekitaldiko azken hiru hilabeteetan. Horri gehitu beharko zaizkio irailetik azarora itxi daitezkeen bitartekotzak eta aldi horretan egiten diren zuzeneko guardiak (informazio eta aholku zerbitzua).

Azaldutako datuak eta hileroko gastuaren bilakaera ikusirik, aurreikusten da kontusail horren kargura egingen den gastua ez iristea 50.000 euroa; beraz, betetze maila % 70ekoa izanen da.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko urriaren 4an

Lehenbiziko lehendakariorde eta Lehendakari-tzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko kontseilaria: Roberto Jiménez Alli

Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak izan ote zuen Espainiako armadak Nafarroako lurraldean eginiko ekitaldiaren berri.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Bakartxo Ruiz Jaso andreak galdera egin du jakiteko ea Nafarroako Gobernuak izan ote zuen Espainiako armadak Nafarroako lurraldean eginiko ekitaldiaren berri.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 9ko 7. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bakartxo Ruiz Jaso foru parlamentari andreak galdera egin du, Nafarroako Foru Komunitateko instalazio militarretan eginiko ekitaldiari buruz. Hona Lehendakari-tzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko kontseilariaren erantzuna:

1.- Foru parlamentari andreak ondokoa galdetu du: Jakinarazi al zitzaien Nafarroako agintariei Nafarroako lurraldean mila militar baino gehiagoren parte-hartzearekin ekitaldi militar bat zergatik egin zen?

Nahiz eta galdera-egileak aipagai hartutako ekitaldia ez identifikatu, hura egin zen eguna, helburua, ezta bestelako daturik ere, jakinarazten da Nafarroako Foru Komunitateko agintari militarrek ez dutela inolako betebeharririk beren jabetzako instalazioetan egiten diren ekitaldien berri emateko, salbu protokoloak hala eskatzen duenean, gonbi-

dapen soila igortzen denean, edo, kasua bada, foru agintarien lankidetzara eskatzen denean balizko ekitaldiaren ondorioz ondasunak edo estamentu militarrekoak ez diren pertsonak erasanak direnean, eta horrek eskatzen duenean Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio departamenturen baten esku-hartzea, bere eskumenen arloan.

2.- Nafarroako Gobernuak ba al daki mila militar horietatik zenbat diren nafarrak?

Departamentu honek ez dauka inolako daturik Nafarroan dauden eta galderaren xede den ekitaldian parte hartu ahal izan zuten efektiboekin nortasun eta izaerari buruz, ezta horien auzotartasun zibilari buruz ere.

3.- Ekitaldi horrek izan al zuen Nafarroako Gobernuaren laguntzarik?

Departamentu honek dakiela, ez da inolako lankidetzarik izan ekitaldi militar horren antolamenduan edo garapenean.

4.- Laguntza horren ondorioz egin al da gasturik? Informazio xehakaturik nahiko nuke, aurrekontuko zein kontusailen kargura egin den adierazita.

Ez dago jasota inolako gasturik, Nafarroako aurrekontu orokorreari egotz dakiekeenik, ekitaldi militarren ondorioz.

Iruñean, 2011ko irailaren 4an

Lehenbiziko lehendakariorde eta Lehendakari-tzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko kontseilaria: Roberto Jiménez Alli

Galdera, jakiteko zein den “Irisgarritasun Unibertsalari eta Ororentzako Diseinuari buruzko Foru Legearen aplikazioa” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du jakiteko zein den “Irisgarritasun Unibertsalari eta Ororentzako Diseinuari buruzko Foru Legearen aplikazioa” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 12ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan

José Lizarbe Baztánek galdera egin du 2011rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretako "Irisgarritasun Unibertsalari eta Ororentzako Diseinuari buruzko Foru Legearen aplikazioa" izeneko kontusailaren betetze mailari buruz. Hona Sustapen eta Etxebizitzako kontseilari eta Nafarroako Gobernu-ko eledunaren erantzuna:

Gaur egunean, aipatu kontusaila ez da betetzerik izan.

Egun bizi dugun egoerak –aurrekontuaren defizitaren eta gastu publikoaren kontrola– nabarmenki oztopatzen du kontusail hori bete ahal izatea.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren Testu Bategineko 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2011ko irailaren 28an

Sustapen eta Etxebizitzako kontseilaria: Anai Astiz Medrano

Galdera, jakiteko zein den “N-111ko biribilgunea Vianan” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du jakiteko zein den “N-111ko biribilgunea Vianan” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 12ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztánek galdera egin du 2011rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretako "N-111ko biribilgunea Vianan" izeneko kontusailaren betetze mailari buruz. Hona Sustapen eta Etxebizitzako kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako 2011rako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legean 150.000 euro aurreikusi ziren kontusail horretarako, eta egun bete gabe geratzen den saldoa 0 eurokoa da.

Herri Lanetako zuzendari nagusiaren otsailaren 28ko 253/2011 Ebazpenaren bidez onetsi zen "Vianan, N-111 eta NA-7230 errepideen arteko bidegurutzean biribilgunea eraikitzea" izeneko lanen 3. ziurtapenari zegokion ordainketa, 92.354,36 eurokoa.

Herri Lanetako zuzendari nagusiaren ekainaren 21eko 692/2011 Ebazpenaren bidez onetsi zen aipatu obren 4. eta azken ziurtapenari zegokion ordainketa, 57.645,64 eurokoa. Hala, kontusaila bere osotasunean beteta geratu zen.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren Testu Bategineko 194.1 artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2011ko irailaren 21ean

Sustapen eta Etxebizitzako kontseilaria: Anai Astiz Medrano

Galdera, ikastetxe publikoetan plantillak murrizteak eragindako aurrezpenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Nekane Pérez Irazabal andreak galdera egin du ikastetxe publikoetan plantillak murrizteak eragindako aurrezpenari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 12ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Nekane Pérez Irazabal andreak galdera egin du, idatziz erantzuteko, ikastetxe publikoetan eta hezkuntza itunduan plantillak murriztearekin zerikusia duten zenbait gairi buruz. Hona Nafarroako Gobernuako Hezkuntzako kontseilariaren erantzuna, Hezkuntza Baliabideen Zuzendaritza Nagusiak eginiko txostena aintzat hartuz emandakoa:

"Bigarren Hezkuntzako irakasleen eskola orduen kopurua aldatzeak ekarri du 2011ko aurrekontuari 1.952.500 euro gutxiago egozte.

Hezkuntza itunduan ez da halakorik egin; izan ere, ikastetxe horietako eskola orduen kopurua ikastetxe publikoetakoa baino handiagoa zen —eta hala izaten jarraitzen du—, astean 23 eskola ordu baitituzte.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Hezkuntzako kontseilaria: José Iribas Sánchez de Boado

Galdera, jakiteko zein den “Gutxiengo etnikoak sustatzeko dirulaguntza” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du jakiteko zein den “Gutxiengo etnikoak sustatzeko dirulaguntza” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 12ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du Nafarroako Aurrekontu Orokorretako "Gutxiengo etnikoak sustatzeko dirulaguntza" izeneko kontusailaren betetze mailari buruz (PES-140/11). Hona Nafarroako Gobernuo Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteriako kontseilariaren erantzuna:

Kontusailaren betetze-maila %100ekoa da.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2011ko irailaren 22an.

Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteriako kontseilaria: Elena Torres Miranda

Galdera, jakiteko zein den “Gaixo zeliakoak dituzten familientzako laguntzak” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du jakiteko zein den “Gaixo zeliakoak dituzten familientzako laguntzak” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 12ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe

Baztán jaunak galdera egin du Nafarroako Aurrekontu Orokorretako “Gaixo zeliakoak dituzten familientzako laguntzak” izeneko kontusailaren betetze mailari buruz (PES-141/11). Hona Nafarroako Gobernuak Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteriako kontseilariaren erantzuna:

Gaur egun, kontusail horren xede diren dirulaguntzak emateko deialdia prestatzen ari da.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2011ko irailaren 22an

Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteriako kontseilaria: Elena Torres Miranda

Galdera, dauden baliabideak Sarrigurengo Osasun Etxea berriz irekitze aldera berrantolatzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak galdera egin du dauden baliabideak Sarrigurengo Osasun Etxea berriz irekitze aldera berrantolatzeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 16ko 11. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde andreak galdera egin du dauden baliabideak Sarrigurengo Osasun Etxea berriz irekitze aldera

berrantolatzeari buruz (8-11/PES-00159). Hona hemen Osasuneko kontseilariaren erantzuna:

Aurrekariak:

2010erako Nafarroako Aurrekontu Orokorre buruzko abenduaren 23ko 16/2009 Foru Legearen hamabosgarren xedapen gehigarrian ezarri zen Sarrigurengo osasun eskualde oinarritzakoaren sorrera. Eskualde horrek hartuko ditu Eguesibarko udalerriko Sarriguren, Badostain eta Ardanazko kontzejuak, baita Erripagainako eremua ere.

Halaber, ezarri zen Sarrigurengo eta Mendillo-riko osasun eskualde oinarritzako eremu berrien arteko muga ez zela indarduna izanen garapenerako foru dekretuak onetsi arte.

2008an, Oinarritzako Osasun Laguntzako Zuzendaritzak prestatu zuen aipatu osasun zentroaren plan funtzionala, kontuan hartuta Osasun Departamentuko plangintza-zerbitzuak emandako

informazioa. Kalkulatu zen osasun zentro berrian artatu beharreko populazioa 22.000 biztanlekoa izanen zela –kalkulua egiteko irizpideak ondokoak izan ziren: okupazio-indizea, etxebizitza guztien % 85ekoa; eta etxebizitza bakoitzeko 2,98 pertsona–, eta planean zehaztu zen eskualdeko populazioari arreta emateko beharrezkoa den plantilla.

Hauxe da egungo egoera:

Osasun zentro berria 2011ko urriaren 3an, astelehena, jarri da abian. Hasiera batean, egungo BOT* kopuruaren eta epe laburrean aurreikusten den hazkundearen arabera langile-plantilla dauka. Plantilla hori handitzen joango da pixkanaka, oinarritzko eskualdearen populazioa areagotzen den neurrian.

Hona hemen Sarrigurengo osasun eskualde oinarritzkoan dagoen banan banako osasun txartel kopurua, abuztuaren 18an:

	Helduak	Haurrak	Guztira
Sarrigurengo OEoko BOTak*	4.486	2.039	6.525

*Banan banako osasun txartela, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren prestazioa jasotzeko eskubidea ematen duena.

Hala, hauek dira egungo plantilla-beharrizanak:

3 familia-mediku, Mendillorriko osasun zentrotik eta Zizur-Etxabakoizko osasun eskualde oinarritzotik etorritakoak.

2 pediatra, Mendillorriko osasun zentrotik eta Arrotxapeko osasun eskualde oinarritzotik etorritakoak.

4 erizain, Mendillorriko osasun zentrotik eta Zizur-Etxabakoizko osasun eskualde oinarritzotik etorritakoak.

2 administrari laguntzaile, bata Mendillorriko osasun zentrotik etorria, eta bestea Oinarritzko Osasun Laguntzako Zuzendaritzan erretiroa hartzeagatik hutsik geratu zen lanpostu batekin bete dena.

Gizarte langilea, Antsoingo osasun eskualde oinarritzkoarekin partekatua.

Baliabideen kudeaketan eta Oinarritzko Osasun Laguntzako Zuzendaritzak dituen eskumenak betetzerakoan efizientzia handiagoa lortze aldera, plantillaren mobilizazioa Mendillorriko osasun eskualde oinarritzotik egin da, Sarrigurengo biztanleak orain arte Mendillorriko osasun zentroari atxikita egon baitira. Gainerakoak BOT/profesional erlazio txikiak eta laguntza-zama txikiak duten oinarritzko eskualdeetatik datoz, haietan errazagoa baita profesionalen mobilizazioa.

Populazioa hazten doan heinean eta, horrenbestez, osasun laguntza jasotzeko eskubidea duten pertsonen kopurua, beharrezkoak diren egokitzapenak eginen dira plantillari dagokionez.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko urriaren 5ean.

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

Galdera, baso-suteen arrazoiei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José Miguel Nuin Moreno jaunak galdera egin du baso-suteen arrazoiei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 16ko 11. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Miguel Nuin Moreno jaunak galdera egin du baso-suteen arrazoiei buruz (8-11/PES-160). Hona Nafarroako Gobernu-ko Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko kontseilariaren erantzuna:

Galdera:

Zer arrazoi dago 2010eko martxoan eta apirilean azalera hain handia erre zedin? Zeri zor zaizkio hilabete horietan izandako suteak? Zenbat espediente ireki zen eta zenbat zehapen ezarri zen?

Honekin batera doazen grafikoetan ikus daitekeen moduan:

Urtarrila euritsua izan zen, ia lurralde osoan gainditu baitzen prezipitazioen batez besteko historikoa.

Otsaila euritsua izan zen eta batez besteko historikoa gainditu zen Foru Komunitateko ia

lurralde osoan. Iparraldean, batez besteko historikoa mantendu zen.

Martxo hilabete lehorra izan zen, eta prezipitazioen kopurua batez besteko historikoa baino txikiagoa izan zen.

Apirila ere hilabete lehorra izan zen, eta prezipitazioen kopurua batez besteko historikoa baino txikiagoa izan zen.

Urtarrileko eta otsaileko prezipitazioei buruzko datu meteorologikoen ondorioz, eta kontuan hartuta urtaro horretan sua erabiltzeko ohitura dagoela larreak hobetu eta arrozaren eta artoaren uztondoak erretzeko, pentsatzekoa da urtarrileko eta otsaileko erreketak martxokoei eta apirilekoei gehitu behar zaizkiela.

Galdera:

Zer arrazoi dago jatorri ezezaguneko baso-suteen ehuneko hain handia izateko? Ez al da suteen jatorria ikertzen? Gainontzeko autonomia erkidegoetan ere halako ehunekoak gertatzen al dira?

Baso-suteen arrazoiaren ikerketa Foruzaingoak eta/edo Guardia Zibilak egiten du. Nik zuzentzen dudana Lehendakaritza Departamentuaren barruan dagoen Nafarroako Larrialdietarako Agentziak ez du suteen arrazoirik ikertzen.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko urriaren 5ean

Lehenbiziko lehendakariorde eta Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko kontseilaria: Roberto Jiménez Alli

Galdera, “onura/gastu fiskal” deritzenak kentzearen arrazoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du “onura/gastu fiskal” deritzenak kentzearen arrazoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 16ko 11. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du, idatziz erantzutekoa, jakiteko zergatik 2012ko aurrekontuak egiterakoan ez diren sartuko

“onura/gastu fiskal” deritzenak (8-11/PES-00162). Hona Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako 2012rako aurrekontuetatik gastu fiskalak kendu dira,

gainerako administrazio publikoekiko informazioa homogeneizatze aldera.

Horrek ez du eragin ekonomikorik; izan ere, ez aplikatzearen ondorioz sortuko lirakeen diru-arrera fiskalak ere kendu egin dira, zenbateko berean. Eragin ekonomikoa, beraz, neutroa da.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko urriaren 5ean

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

Galdera, aurrekontuko diruan 2012rako muga gisa ehuneko 2,95eko beherakada ezartzearen arrazoiei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du aurrekontuko diruan 2012rako muga gisa ehuneko 2,95eko beherakada ezartzearen arrazoiei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 16ko 11. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du, idatziz erantzutekoa, Nafarroako Gobernuak, Nafarroako 2012ko Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua prestatzerakoan, aurrekontuan jarriko den diru-kopuruaren muga % 2,95

murriztuko dela aurrekusi izanari buruzkoa (PES-000163). Hona Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren erantzuna:

1.- 2012rako izaera fiskaleko balizko ekimenak, kasua bada, dagozkien Foru Lege proiektuetan aurkeztuko dira.

2.- Aurreko puntuarekin erantzuntzat ematen da.

3.- Ez. Nafarroako Gobernuak aztertuko du zein den araubide komuneko autonomia erkidegoetako ezarpen-maila eta, horren arabera, erabakiko da zer den komenigarriena Nafarroarako, bere ahalmen eta autonomia fiskalaren esparruan.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko urriaren 6an

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

Galdera, jakiteko zein den Nafarroako Gobernuaren jarrera PPren Gobernuak onetsitako lan erreforma dela eta.

JOSÉ MIGUEL NUIN MORENO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Miguel Nuin Moreno jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko zein den Nafarroako Gobernuaren jarrera PPren Gobernuak onetsitako lan erreforma dela eta.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari José Miguel Nuin Morenok, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak ahoz erantzun dezan otsailaren 23ko Osoko Bilkuran:

PPren Gobernuak Lan merkatua erreformatzeko presako neurriei buruzko otsailaren 10eko 3/2012 Errege Lege Dekretua onetsi zuen iragan otsailaren 10ean.

Lan merkatuaren erreforma horrek, besteak beste, iraizpena erraztu eta merkatzen du, enpresaburuaren boterea sendotzen du, lansariaren jaitsiera orokorra ahalbidetzen du, administrazio publikoaren aurretiazko kontrola kentzen du enplegu-erregula-

zioke espedienteen kasuan, eta zabor-kontratuak hedatzea bultzatu eta sustatzen du.

PPren Gobernuak inposatu duen erreforma lan harremanen araubidearen oinarriko printzipioen aurkako eraso bat da; enpresaburuaren sistemaren erdigunean jartzen du, lan baldintzen gaineko erabaki aldebakarrekoak hartzeko bere ahalmena biderkatuz; enplegua drastikoki prekarioagotzen du; lanerako eskubidearen zati handi bat anputatzen du, eta negoziazio kolektiboaren eraginkortasuna larriki murrizten du, langilea enpresaburuaren botere arbitrarioaren mende utzita.

Erreforma horren lehen ondorioen artean egon diren enpleguaren suntsitze-prozesu gogor bat eta langabeziaren zifren areagotzea.

Nafarroan, krisi ekonomikoa hasi zenez geroztik, asko igo da langabezia. Langabezia-tasa ia % 14koa izan da 2011ko azken hiruhilekoko Biztanleria Aktiboaren Inkestaren arabera, eta 50.149 pertsona daude jada Nafarroako Enplegu Zerbitzuan langabetu gis izena emanda.

PPren Gobernuak inposatutako lan erreformak zifra horiek areagotu besterik ez du eginen.

Hori dela-eta, honakoa galdetzen dugu:

PPren Gobernuak onetsitako lan erreforma langileen eskubideen aurkako eraso izugarri bat da. Nafarroako Gobernuak besoak gurutzatuta jarraituko al du, horren aurrean eta erreformak ekarriko duen langabeziaren igoeraren aurrean ezer egin gabe?

Iruñean, 2012ko otsailaren 10ean

Foru parlamentaria: José Miguel Nuin Moreno

Galdera, jakiteko nola eraginen duten betetzen ez diren lanpostu hutsek zerbitzu publikoetan.

VÍCTOR RUBIO MARTÍNEZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Víctor Rubio Martínez jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko nola eraginen duten betetzen ez diren lanpostu hutsek zerbitzu publikoetan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Víctor Rubio Martínezek, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak ahoz erantzun dezan otsailaren 23ko Osoko Bilkuran:

Funtzio publikoan sortzen diren lanpostu huts guztiak betetzen ez baldin badira, nafarrek zein neurritan jarraituko dute zerbitzu publikoak izaten?

Iruñean, 2012ko otsailaren 20an

Foru parlamentaria: Víctor Rubio Martínez

